



Gipuzkoako suhiltzaileen zerbitzua indartu eta lanpostu berriak sortzeko mozioa

Gipuzkoako Foru Aldundiko suhiltzaile zerbitzuan 204 funtzionario daude suhiltzaile eta kaboen artean. Plantilla horrekin osatzen dira egungo 8 parke-etxetako eguneroko txandak: Eibar, Ordizia, Legazpi, Oñati, Tolosa, Zarautz eta Azpeitian 4 suhiltzaileetako txandak osatzen dira eta Irungo parke etxean 6koa.

Txanda horiek, Aldundiko zerbitzuko barne arauaren arabera gutxieneko txandak dira, hortik behera ezinda joan gutxieneko seguritatea eta zerbitzuaren kalitatea bermatzekotan. Beraz, gutxieneko horretatik behera joz gero, baja horiek derrigorrez ordezkatu behar dira.

2018ko ekainaren 13an Gipuzkoako Batzar Nagusietan Gipuzkoa 20_30 Plana onartu zen eta horrekin batera 19 mozio onartu ziren, horien artean planaren garapenerako urteko ekintza planak egitea eskatzen zuena eta suhiltzaileen lan baldintzak hobetzeko, lanpostu berriak sortzeko, guardia guztiak 4 suhiltzailetik 6ra pasatzeko. Batzar Nagusietako ebazpen hori betetzeko 84 suhiltzaile plaza berri sortu behar dira eta horretarako konpromisoa, plana, kronograma eta baliabideak beharrezkoak dira.

Hitzetatik ekintzetara pasatzeko aldiz, ez da urratsik egin, eta egoera okertzen joan da. 2019ko aurrekontu proiektuan ez dago ezer jasota eta Gipuzkoa 20_30 Plana garatzen joateko datorren urteko planik oraindik ez dago.


Gipuzkoan arlo honetan arazo larria dago, ordezkatzeko lan poltsa hutsik baitago, hau da, ordezkatzeko zerrenda agortuta dago. Egoera honetan, txandak gutxienekoetatik behera ez joateko, bajak aritu dira estaltzen, suhiltzaileek bat bateko bajak estali ahal izateko duten 24 orduko poltsekin. Aldez aurretik programaturako bajak ere, bat bateko bajak estaltzeko orduekin ari dira estaltzen eta une honetan suhiltzaile gehienek 24 orduko poltsa hori agortuta dute.

Testuinguru horretan egunotako gertakariak, gutxieneko txandak osatu gabe geratzea hainbat parke etxeetan eta Aldundiak Legazpiko parke etxea 24 orduz itxi behar izana suhiltzaile nahikorik ez zegoelako, egoeraren larritasun maila altuaren adierazleak dira.

Hori dela eta, azkeneko urte honetan langileen egoeraren bilakaera kontuan hartuta, hau da, suhiltzaile nahikorik ez dagoela gutxieneko zerbitzuak bermatzeko eta bajak ordezkatzeko lan poltsa agorturik dagoela, neurri urgenteak ezinbestekoak direla uste du EH Bilduk. Ildo honetatik honako mozioa aurkezten dugu.

MOZIOA

Zarauzko Udalak eskatzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiari Gipuzkoa 20_30 planaren garapenerako bidean, urte honetan 48 suhiltzaile lanpostu berri sortzeko, parke etxe guztietan gutxienez 5 suhiltzaileen txandak bermatzeko.



Mikel Goenaga Gubia



Egiaztapen Kode Segurua / Código Seguro de Verificación: **SIERe19ffdc2-76f2-41b1-937c-eb1ae7d0bce6**

Dokumentu elektronikoen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07910>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07910>